

ERREPORTAJEA PEDRO MARI EGAÑAK JOKORAKO 19 AHARI HAZTEN DITU
GEHIGARRIA KILIBARREN · KIROLA ZUHAITZ GURRUTXAGARI ELKARRIZKETA

BARREn

ASTEKARIA

EL GOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko azaroaren 29a/X. urtea/426. zkia

*Ahari apostuak
herri kirolik ezezagunena*

"AHARI ZAHARRAK, BETI BURUZAGI" (esaera zaharra)

BASKO RENT

MANTENDU EZAZU ZURE AUTOA ARBI eta PREST!



**GARBIKETA AUTOMATIKO
PUBLIKOA**




**GARBIKETA
2,50 C**

**GARBIKETA LEHORKETA
ARGIZARIA EMATEA
3,50 C**



**ESKUZ EGINIKO
GARBIKETA**

**GARBIKETA
BEREZIA
4,50**



HORREZ GAIN:

OlioarEn Edo filtroEn aldaketa
PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldakEta
BalaztEn Eta EsEkidurarEn aztErkEta
MantEnimEndu orokorra

SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar

ir 902 103 287

BaRREN

Partaideak hanan-hanan



Gurrilitxaga

- Adina: 24 urte
- Lanbidea: Kazetaria
- Taideko abeslaria



Ailor Badiola

- Adina: 28 urte
- Lanbidea: Mekanikoa

Zenbat holako!!

amaika ikusteko jaiok omen gara. Eta gu ere ez gara libratu. 10 urtean hamaika hanka sartze, bitxikeria eta xelebrikeria ezagutu ditugu. Ez da harrizkeoa. Izan ere, 10 urtean 13.500 orrialde pasa idatzi ditugu, eta 17.000 ordutan egon dira zabalik BARREneko atek. Eta norberaren buruari barre egitea baino gauza sanoagorik ez dagoenez, hamar urteotan egin ditugun hanka sartze batzuk kontatuko dizkizuegu.

- Arima Beltzaren gaineko erreportajeen, taldeko guztien erretratuak atera nahi genituen. Baina, Jon Gurrutxagaren aurpegiaren ordez diska baten azala jarri genuen. Gaitzerdi diska Arima Beltzarena izan balitz!!

- Erretratu zahar batean, Prudencio Uribarren hilda zegoela jarri genuen, bere anaiarekin konfundituta. Laster etorri zen senitarteko bat Prudencio bizirik zegoela esatera, Donostian bizi zela.

- Zenbakiak ere susto edarra eman ziguten behin. Urteko Udal aurrekontuak atera genituen eta 1.100 pezetako aurrekontuak onartu zirela esan genuen. 1.100.000.000 pezeta jarri behar genuen. Zer dira ba sei zero!

- Gabonetako ale batean, Pilar ikastetxekeko publizitatean zera jarri genuen: "San Bartolome jaietan alaitasuna eta anaitasuna". Gabonetarako ere mezu aproposa da, ezta?

- Don Alfontso apaizari egin genion elkarrizketa batean "Gaztetan sagarrak harrapatzen nituen" jarri genuen. Noski, berak ez zigun horrelakorik esan. Maketa egiterakoan geuk asmatutako titular batek ihes egin zigun. Barkatuko al zigun pekatua Don Alfontso?

- Beste batean, eta hau azkena da, parroko beharrean *pakorro* idatzi genuen!

Dabilenari gertatzen omen zaio, eta gu ibili egin gara.



Azaroak 23

18 urte bete dituzte Iñaxio Iriondok eta Iriaki Jaiok Espainiako gartzelatan. Aspaldi behar zuten kalean, orain dela 6 urte bete baitzituzten kondena hiru laurdenak. Oraindik ere gartzelan daudelako ekitaldi bat antolatuta zegoen pasa den larunbaterako. Ez zen posible izan Plaza Handia ertzainez beteta zegoelako. Armaturik, aurpegiak estalita, kaskoekin. Bideo kamara batek etengabe grabatu zituen han zeuden guztiak behin eta berriz. Ekitaldia debekatu eta bertan zeuden 7 pertsona atxilotu zituzten, gerora Eibarrera eramateko. Arratsalde guztian han eduki ondoren, eta batzuk biluztuarazi eta gero, fitxatu egin zituzten eta "tenurismoaren apologia" eta "desobedientzia" akusaziopean libre utzi zituzten, gerora etorri daitekeenaren esperoan. Gertaera honek argi erakusten digu egun Euskal Herriak bizi duen egoera. Espainol nazionalistei alfonbra gorria Donostian jartzen zaien bitartean, Elgoibarren ezin da eskatu orain dela 6 urte kalean behar luketenen askatasuna. Espainiako faxistak Bilbon manifestatzen diren bitartean, herri honen sektore zabalei ez zaie uzten berdina egiten Donostian. PP eta Garzonen asmoak eta erabakiak gauzatzen sekulako gogoa ari dira adierazten batzuk: ez bakarrik Iruñean eta Nafarroan, baita Baskongadetan eta, bistan denez, Elgoibarren ere. Askatasunen munizketen protagonistak bihurtu nahi dutela dirudi Eusko Jaurilaritzako alderdiek eta Ertzaintzak berak, Euskal Herria herri bezala ezabatu nahi dutenekin batera (PP-PSOE). Edozer gauza beren botere kuotak galtzea baino. Udal hauteskundeak gainean ditugu eta batzuk sekulako gogoa dute irabazia ateratzeko hortik ere. Geldi egotea une hauetan egin dezakezun larriena izango litzateke. Beraz, animatu eta eman pauso bat.

Pello Mendizabal

KeXak	5
motz MOtZ	8
gehigarria	13
kiRoIAk	20
aGenda	24

Oharra

Datorren abenduaren 6an Konstituzio Eguna denez, abenduaren 5ean, OSTEGUNEAN, kaleratuko dugu BARREN aldizkariaren hurrengo alea, egun bat lehenago beraz.

AUPA LILIPUT!

Aupa bihotz handiko gizaki txikiak!

Jose Mari- Taupadak abiada batean sumatzen ditut bekokian. 5 bat minutu faltako dira hasteko. Ilunpean, hemen. Zapi honen azpian kostatzen zait arnasa hartzea.

Gaurkoa da estreinaldia, hainbeste hilabete eta gero, azkenean!

Bukatuko ahal da behingoz hasierako musika hau! Fokuak isiotu eta

Eskerrak alboan beste bi hauek ditudala.

Aupa Liliput!

Eduarne- Pare bat minutu eta hasi egingo gara.

Animo neska!

Eta beste hau? Gehiegi mugitzen da Josemari. Hartu arnasa lasai mutil!

Musika polita aukeratu dugu girotzeko eta antzokia gainezka dago. Dena ondo aterako da!

Eta Bernardo? Ez dugu gonbidatu, etorriko ote zen?

25 urte antzerkian lanean eta oraindik ere igartzen duzue kilikilia sabelean, jende aurrean azaltzen zaretzen bakoitzean, istorio berri bat eskaintzen duzuenean.

Neska-mutikoak sartu dira antzokian, badatoz antzixikan.

Hauei ez esan "Hori antzerki hutsa da!" nagusi batzuek dioten bezala faltsukeriaz dihardutenean, antzerkia gezurra delakoan edo. Neska-mutikoentzat antzerkia egia berdaderoa da. Fantasia errealitatea da.

Jarraitu ezazue mundu magikoak sortzen, oraindik ere prest gaude eszenatoki gaineko ametsak bizitzeko.

Argiak piztu dira, antzerkia hastera doa, fantasiaren atek, berriro ere, ireki dira.

Zorionak TAUPADAtarrok!

Xabier Ansola 15.349.380-P
Ekekei Antzerki Taldea

Urruzunoren begi ezkutua

Ari gara



Lagun edo ezagun batek kontatu zigun. Elgoibarren kuadrillak berbiltzen ari dira, eta aurreko mendeko elkarteak, ez guzti guztiak, baina bai gehienak elkarlanean hasi dira berriro jada.

Honezkero nola esan, soziedatea eta komunikazioari esker insumiso batek esana lotzen ari dira, behintzat gure zulo bailara honetan. Nik erraiten dut zuloa baino nahiago dut ahoa, itsasoarena. Muxu bat hondartzan.

Joseba Esnaola

ASTE KARIA BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
-943 74 41 12
Publizitatea:
fr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarre

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea KAZETARIA Irati Agirreazaldegia, Pueuzarrea Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRATZKMAmaia Rodriguez GARENTZIA Jon Peli Uriguren KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Eduarne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Goraatza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZANARRA Gotzon Garateren liburukia INPRIMATEGIA Gedu Koop. E. TMADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZKRRIA
FULT111. ELX.,11.4

Elgoibarko Udalak, Euska Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



ric kutxa
esker

Aik DANOBAT
MAQUINAS MEPP.IENTA

52¹ GOITI
GRUPO DANOBAT

FIT-41.1TA

51111111

- Emakume batek asteburuetakoko egoera salatu nahi du: "**Larunbat iluntzetan Urasandi auzorako igoera autoz beteta egoten da** (bi aldeetako espaloiak, eta errepide zati bat). Larunbatetan arriskutsua da Urasandin kotxez mugitzea, eta oso zaila da bi kotxe gurutzatzea. Herrikoei ez badigute uzten horrela aparkatzen, zergatik larunbatetan etortzen direnei bai? Zergatik uzten zaie nahi duten kalte guztia eta nahi duten apurketa guztiak egiten? Udaltzainei deituz gero, "Madalatik ez mugitzeko agindua daukagu" erantzuten digute. Beraz, nork babesten ditu elgoibartarron eskubideak asteburuetan? Udaltzainek irizpide berarekin jokatu behar lukete.

V



- Gazte batzuk esan digute, **Elgoibarren ez dagoela gazteentzako ezer**: "**Gazteentzako** cibercafe, gazteguneko edo ludoteka bat egon beharko litzateke herrian. Ez dago ezer, eta asteburuetan ez dugu jakiten zer egin".



- **Melitongo zubi aldameneko autobus geltokia oso egoera kaskarrean dagoela** azaldu digu gazte batek: "Kristal guztiak apurtuta daude, eta inguruan ez dago beste aterperik. Herritik urrun dagoen arren, auzokide ugari hartzen du autobusa bertan, eta gehiago zaindu beharko litzateke".

T11111,01X

- Herritar batek **Elgoibarko Parrokiako Abesbatza txalotu** nahi du: "Joan zen larunbat gaueko mezan eskaini zuten emanaldia oso ona izan zen, eta txaloak merezi dituzte. Gehiagotan eman beharko lituzkete horrelako ikuskizunak".





Ahari lokoak,

Pedro Mari Egañak igande arratsaldero hutsik egiten ez duen afizioa dauka, baina ez da futbola, herri kirolen artean ezezagunetarikoa eta bitxiena baizik: ahari apustua. Ahari jokorako prestatzen dituen 19 ahari ditu San Roke bailarako Mintxeta baserrian eta urtean 6 edo 7 apostu jokatzen ditu Azpeitiko zezen plazan. Artzainen arteko norgehiagoka gisa jaiotzen ziren ahari apustuak, baina XX. mende hasieran plazako jendaurrera biltzen hasi ziren eta moda-modan jarri herri kirolen zaleenizat. Gour egun gainbehera bizi dute eta ahari-apustuak urte asko baino lehen galduko direla diote askok.

19 AHARI

Pedro Mari Egaila Mintxeta baserrian bizi da eta bertan hezitzen ditu ahari apustutarako erabiltzen dituen 19 ahariak. Duela 24 urte hartu zuen parte lehendabizikoz ahari apustu batean, "ahari bat nakan buru edarra zakana. Probau eta jokua ein naban. Poliki poliki ahari gehixo biltzen jun nintzan, baina oin dala 9 urte danak kendu nitxun egun batetik bestera". Duela bi urte berriz hastea erabaki zuen. "Hiru edo lau aharirekin hasi nintzan eta poliki poliki, gustau ahala, gehixo erosten jun nintzan. Momentu honetan 19 daukadaz, gehixegi akaso". Ahari gehienak nahasteak edo mestizoak dira, "lehen ahari hutsak gitxi dakadaz, 3 edo 4 besterik ez. Gehixenak aharixak eta Mufloien arteko nahasketia dia, nahiz eta batzuri igarri ere ez jakuen eitzen".

DIRU ASKO

Ahari-jokoan aritzeko 5 eta 7 urte bitarteko ahariak direla onenak aipatu digu, "Sei hilabeteko arraza oneko aharixak erosten ditzut. Urtebete edo bi ardi artian hazitxarako ibili eta jokurako preparatzen ditzut. Jaten eman, piskat gizendu eta probau eitzen ditzut balio daben edo ez ikusteko. Balixo badabe hobeto preparatzen ditzut eta lau urtekin ahari jokurako prest daoz. Ez da komeni 4 urte baino gutxioko aharixeko jokurik eitxerik eta 8 urtetik gorakuak zahartxuak izaten dia". Ahariak hazi eta gero saldu ere egiten ditu. 50.000 pezetatik 300.000 pezeta bitartean balio dezake ahari batek, baina badago 700.000 pezeta ordaindu duenik ere. "Ahari on bat izateko burua da inportantiena. Buru handi eta adar onak eukitzia. Buru ona euki arren, ihes eitzen dadu alperrik da, ordia".



NOLA ENTRENATZEN DIRA

Apustu eguna baino bi hilabete lehenago hasten ditu trebatze lanak Pedro Marik. Korrikalariak moduan entrenatzen ditu. Bi egunez behin ordu erdi edo hiru ordulaurdeneko mendi buelta egiten du pauso bizi bizian ibiliz. Ahariak prestatzeko zenbat eta borroka gutxiago egin hobea dela uste du, "borrokarako orduan ihes eitzen daben edo ez ikusteko proba moduko bat eixia bakarrik komeni da".

**"Badago ahari batengatik
700.000 pezeta ordaindu
duenik ere"**

P.M. Egana

Elikadura ere garrantzitsua da, apustu egunean aurrez ezarritako pisuan sartu behar baidute ahariek boxeolariekin gertatzen den moduan. Pedro Marik azaldu digunez, "jokua eixia erabakitzen danean, bata bestian aharixa ikustia izaten da lehenengo lana. Gero apustuan zenbatakua erabakitzen da eta paper bat bete bihar da eguna eta kantidadia idatziz". Apostu egunaren bezperan, iluntzeko 18:00etarako pisatzera eraman behar dira ahariak. "Aurrez erabakitxako pisua ezin da gramo bakar batian pasau, bestela kontrarixuak aukeria daka atzera eitzeko. Jateko, laztua, babia eta pupa (erremolatxarekin egiten den abereentzako janaria) ematen diuet. Lehen edozer gauza eitzen zan eta

galtzear dagoen herri kirola?


batzuek ardo beltza ere ematen ziuen, baina horrek barrua berotzen diue eta ez da ona". Erasokorragoak izateko Doping-a ere existitzen dela aitortu digu, "batzuk ematen diue zeozer, baina ahari daneri ez die berdin eragiten. Pertsoneri moduan batzuri kalte eta beste batzuri mesede eitzen die"

NON IKUSI DAITEKE GAUR EGUN

Azpeitiko zezen plazan igandero ikusi daitezke ahari-apustuak urriko lehen igandetik uztaile arte. Arratsaldeko 16:30etan hasi eta saio bakoitzean 4 apustu jokatzeko dira gehienez. Ahari onak edo aharizale famatuak direnean jende asko inguratzen da plazara eta dirua ere erraztasunez mugitzen da eskutik eskura. "Batzuk asko jokatzeko dabe trabesian, 20.000 duro edo gehixo. Lehen askoz gehixo jokatzeko zan eta jende gaztia ere gutxi juten da". Ahari-jokoak galtzeak pena emango lioke, baina oraindik mantenduko direla uste du, "jaiero juten naiz eta pena emango liake galtziak, batez ere, Azpeitxin lagun asko egin ditxudalako. Afaltzera elkarrekin juten gera eta apostu asko bertan sortzen dira. Dana dala, neu zahartuko naiz hau galtzerako"

KIROL GOGORRA

Ahari apustuak ikuskizun gogorra dira eta Pedro Mari ados dago, "guretzat normala da, baina ulertzen dot sekula ikusi gabekuei inpresiva eixia. Emakume askok garraixiak botatzen ditxue. Hala ere, ahariak min hartu dabela sentitziaren ihes eitzen dabe. Inork ez ditxu borrokara bihurtzen. Euren kasa eitzen dabe borroka. Idi probak eta zezenketak zakarrak iruditzen jataz. Lotu eta erain eitzen baidie idiei eta zezenak, berriz, ezpataz hil".



Ahari jokorako 19 abere hezitzen ditu Pedro Mari Egaitak San Rokeko Mintxeta baserrian.

AHARI-JOKOAREN NONDIK NORAKOAK

Ahari-apostua 8 kintzetara jokatzeko da, 8 ekinaldietara, alegia. Arautegiak agintzen duenaren arabera, lehenengo lau botaldiak, motzean egin behar dira; eta hurrengo laurak, hirugarren epaileak aginduko duen arrastotik, luzean. Aharietako batek, joko hasteko beldurrez, ihesari ematen badio (askotan gertatzen den lez), beste ahalegin bat edo gehiago egiteko eskubidea izango du bere jabeak, nahiz eta behin iheska hasten den aberea borrokarako prestatzea oso zaila izaten den. "Askotan gertatzen da ahariak bota eta bata alde batera eta bestia bestera jutia. 8 botalditan berdina gertatuz gero apostua ez da kontutan hartzen. Eta alderantziz, 8 botalditan inork ez badu atzera eitzen, parra".

Apustua irabazi, beldurtu eta atzera egin ez duen ahariak irabazten du. Irabazliak aurrera egin behar ditu 4 pausu eta galtzailiak, berriz, atzera. Bi kintzetan pasa behar da berdina irabazlia eta galtzailia erabakitzeko. Gutxienez lau kolpe eman beharko dizkiote elkarri. Bestela, apustu horren sarrera-dirua Udaletxerako izango da.

Bataz beste, 30/70 kolpe inguruan errenditzen dira apustuan asko jota ere. Ez da izaten 8 borrokaldiren beharrik, lehenengo bi kintzetan erabakitzen baitira erabaki beharrekoak. "300 kolpetik gorako borrokaldixak ikusi izan ditxut, baina ez jataz gustatzen. Nahixao dot kolpe gitxi, 30 eta 40 bitxartian, baina benetakoak ematen ditxuen ahari-jokuak"

7 lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Jaio eta Iriondo presoen aldeko omenaldian

Etixerat taldeak eta presoen lagunek presoen eskubideak aldarrikatzen jarraituko dutela esan dute

Joan den larunbaterako, Iñaki Jaio eta Iñaxio Iriondo preso elgoibartarren aldeko omenaldia deituta zegoen. Izan ere, 18 urte egin dituzte kartzelan eta zigorraren 3/4ak beteta dituztenez, legez kalean behar lukete. Baina prestatuta zegoen ekitaldia ezin izan zuten egin. 12:30ean Plaza Handian omenaldirako gauzak prestatzen ari zirela Ertzaintzako lau furgoneta iritsi ziren eta antolatzaileak identifikatu nahi izan zituzten. Tentsio une batzuen ostean, zazpi lagun atxilotuta eramane zituzten. Arratsalde osoan komisarian eduki ostean, aske laga zituzten. "Terrorismoaren apologia" eta "autoritateari aurka egitea" leporatu diete eta kasua zuzenean Audientzia Nazionalera bideratu dute. Etixerat taldeak eta presoen lagunek gertatutakoaren ondoren zera adierazi dute: "Elgoibarko eta Euskal Herriko presoen eskubideak aldarrikatzen jarraituko dugu, senideak



Ertzaintzak Plaza Handian bi lagun atxilotu zituen unea ikus dezakegu argazkian

babesten eta gure kideak oroitzen, nahiz eta, Garzon eta gartzonillo batzuen buruan gure ekintzak debekatzea egon, nahiz eta gure eredu plazatik-indarkeriaz- ezkutarazi nahi izan".

Azpiegitura ukatu

Bestalde, ekitaldirako eskatuta zeukaten materiala Udalak ez utzi izana

ere salatu dute. "Orain arte beste urteetan omenaldia zein antzerako ekitaldiak egiteko utzi dizkigute, baina aste honetan sarjentuaren txosten bitxi bat dela medio, Etixerat taldeari azpiegitura ez uztea erabaki dute". Era berean 7 herritar atxilotu eta "herriko alkateak hauen egoerari buruz ezer jakin nahi ez izatea" ulertezintzat jo dute.

Melitongo errotonda egiteko lanak hasi dituzte

Bestalde, kiroldegia eta Basarte arteko oinezkoen bidea itxi egin dute



1.241.047 euroko aurrekontua du melitongo errotondak eta apirilera amaitzea espero dute.

Makinak hasi dira Melitongo zubia irekitzeko errotonda egiteko lanak egokitzen. N-634 errepedetik Elgoibarrera etortzeko sarreretako bat Melitongo zubian dago eta auto pilaketak egoten dira bertan, ordu zehatz batzutan 1200 auto pasatzeraino orduko. Gainera, laster Albitxuriko gune industrialia martxan jarritakoan, auto gehiago ibiliko dela aurreikusita dute. Errotonda egitearen helburuetako bat auto pilaketak ebitatzea da, hain zuzen ere. Guztira 1.241.047 euroko kostua izango du eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Deba Beheko Industrialdeak ordainduko dute. Lanak

apirilera amaitzeko asmoa dute.

Basarteko oinezkoen bidea

Bestalde, Basarte eta Kiroldegi arteko oinezkoentzako bidea itxita dago Arregitorren etxebizitzak eraikitze lanetan hasi direlako. Gaur egun bidea dagoen tokian etxebizitza bloke bat eraikiko dute eta gainera, kamioien joan-etorria egongo da obretan. Hori dela-eta behin-behineko beste bide bat prestatu dute. Bidea San Rokeko autopistako zubia irekitzeko goiko aldean hasi eta Basarteko etxe berrietara arte joango da, 3 metroko zabalera izango du eta argizatuta egongo da.

San Migel-Aiastian ere Gerra Zibileko gorpuak daude lurperatuta

1982an Ziardamendiko lurretatik 6 gorpu atera zituzten

Urriaren hasieran eman genizuen Sallobente auzoan 36ko Gerra Zibilean hildakoen gorpuak lurperatuta daudeneko berria. Orain, San Migel-Aiastia bailaran ere badaudela jakin dugu.

Aranzadi Elkartean jasotako hainbat deik eman zuten honen berri eta azaroaren 9an Lourdes Herrasti arkeologoa eta Francisco Etxeberria mediku forensea leku hauek aztertzen izan ziren. Ibilaldian Felix Etxeberria eta Victoriano Agote izan zituzten lagun, baita Amaia Jauregi, Lore Agirreazaldegia eta Larraitz Zialtzeta medikuntzako ikasle elgoibartarrak ere.

'Ziardamendi izeneko ingurunean, San Migel-Aiastia bailaran daude lurperatuta gorpuak eta Francisco Etxeberriak egindako informarean arabera, 1982an Zubiatur batailoiko 6 gizonen gorpuak atera zituzten lurretik. Heriotza hauek 1936ko irailaren 25ean gertatu zirela gogoratzen du Victoriano Agotek. Begoriakoak ziren guztiak eta Derioko hilerria eraman zituzten. Ikerketa honen arabera guztira 7 lekutan daude 14 gorpu lurperatuta Elgoibarren. Esan digutenez, baliteke laster gorpuak lurretik ateratzeko lanetan hastea, oraindik eguna zehaztu ez badute ere.



Aranzadi Elkartekoak eta medikuntzako ikasleak izan ziren ingurua ikertzen Felix Etxeberria eta Victoriano Agoterekin.

Aurten urrezko ezteiak bete dituzten 6 bikote omendu zituzten jubilatuen astean



Jubilatuen astea ospatu zuten joan den azaroaren 18tik 24ra bitartean. Itxaropena abesbatzaren kontzertua, txokolatada, Gabonetako otarren zozketa, kina eta meza izan dira besteak beste astean zehar. Ekitaldi bereziena osteguneko bazkaria izan zen. Bertan 80 urtetik gorakoek eta aurten urrezko

ezteiak bete dituzten 6 bikotek omenaldia jaso zuten. Honakoak dira omendutako senar-emazteak: Iñaki Insausti eta M.Paz Rodriguez, Jeronimo Bollar eta Maria Mendikute, Manuel Jauregi eta M.Lourdes Sanz, Joxe Urkiri eta Paulina Lasa, Luis Tudanca eta Julia Zendoia eta Joxe Epelde eta Josefma Iturbe.

Hiesaren prebentzio asterako hainbat ekintza antolatu ditu Errotatxok

Datorren abenduaren leian Hiesaren eguna da. Hori dela-eta Errotatxok Hiesaren prebentzio astea antolatu du. Astearte eta ostegunetan Ongarri zine klubarekin batera zine emanaldia eskaini zuen eta baita mahai informatiboa jarri ere. Gaur, ostirala Hiesari buruzko hitzaldia izango da Gaztetxean, Herriko Antzokian, berriz, Arima Beltza taldearen kontzertua. Bihar larunbata Plaza Handian umeentzako puztarriak ipiniko dituzte eta baita globoak eta lazoak banatu ere Atxutxiamaikaren laguntzaz. Bestalde, Biluzik sexologia zerbitzuarekin elkarlanean mahai informatiboa jarriko dute. Iganderako, abenduaren lerako Hiesaz hidakoei omenaldia dago iragarrita eta egun honetan herriko balkoietan zapi zuriak lazo gorriarekin ipintzeko deia egin nahi diete Errotatxokoek herritarrei.

Inkesta baten arabera, euskaldunek familia eta lana gehiago baloratzen dute erlijioa eta politika baino ZER DA GARRANTZITSUAGOA: LANA, FAMILIA, POLITIKA, AISIALDIA ALA ERLIJIOA?



MARIA LUISA NARBAIZA

50 urte, etxeandrea

Familia, batez ere, eta lana gero. Etxekuak ondo ez bagaude alperrik da beste dana ondo egotia.

IGOR PALOMINO

30 urte, protesiko dentala

Ni bat nator enquesta horrek esaten dabanakin, familia eta lana dia inportantienak. Ondo bizitziari inportantzia gehixao ematen jako erlijivari edo politikari baino.



MARISOL VERGEL

30 urte, kamareroa

Familia, dudarik gabe, beste guztien ganetik jarriko nuke. Izan ere, familia da bizitzaren oinarria.

JOSE ANTONIO ISASTI

42 urte, torneroa

Politika eta erlijioa ez zaizkit axola. Bestalde, familia aurrera ateratzeko lana egin behar dut, beraz, etxetik lanera eta lanetik etxera, hori da nire bizitza.



GLORIA PINILLA

40 urte, etxeandrea

Familia eta lana dira niretzat garrantzitsuenak. Lan kontua ondo egon ezean familian eragiten du. Gainontzeko kontuak ez zaizkit hainbeste inporta.

JAVIER MENDIZABAL


53 urte, torneroa

Lana, beti ere familixiakin lotuta. Bata ondo juteko bestia ere ondo jun bihar da. Politikia, erlijiva eta beste kontuak bigarren mailakuak dia neretzat.



ESKERTZA

2002ko azaroaren 12an, 94 urte zituela hil zen FRANCISCA AIZPIRI GARATEren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





IÑAKI RIVERO
POOLOGOA



OSPELAK

Negurekin batera ohikoa izaten da podologoaren kontsultara bisita egitea ospelak direla-eta. Hotz hezeak eragindako inflamazioak dira. Lehen mailako izozketa, babak edo zartadurak agertuz gero bigarren mailara iritsi daitezkeenak. Esku eta oinetan agertzen dira batez ere, eta batzutan baita sudurrean edo belarrietan ere. Oinetan ohiko lekuak honako hauek dira:

- * Orpoaren atzeko partea.
- * Behatzen arteko artikulazioa.
- * Behatzen bizkarraldea.

Sintomak

- Orban gorriak kolore morea hartzen dutenak.
- Azal tirante eta dizdiratsua, tenperatura altuagoa.
- Edemak, babak sor ditzaketanak.
- Hazkura, tenperatura aldaketekin gehiagora egiten du.



Arrazoiak

Hotz hezea, batez ere zirkulazio arazoak dituen jendearengan, bai gorpuzkerarengatik edo anemiarengatik.

Arazoak

Zartadurak edo ultzerazioak: Infektatzeko arriskua.

Tratamendua

Medikuak agindutakoaz gain, garbiketa zaindu eta neurri prebentiboak hartu behar dira:

- Gorputz adarren berotasunak eragindako bat-bateko hezetasun eta berotasunak ebitatu. Beroketa behatzen ariketak eragindakoa izango da: saltoak, igurtziak...
- Artilezko galtzerdiak.
- Ur hotz eta berozko bainuak: Lehenengo beroa eta gero hotza (beti ere gatzarekin).
- Azalaldeko zirkulazioa hobetu hauts koipetsu, ariketa eta bainuekin.

Ospelak ateratakoan bainuak goizez eta arratsaldean hartu behar dira gatz-urarekin edo apio zein intxaurren orriz egindako infusioarekin. Ondoren, ondo lehortu eta kanfor-alkoholez masajea egin. Gauetan pomada eman. Tratamendu hauek elkarrekin konbinatu daitezke.

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu **BARRE**neko 943 74 41 12ra

MASAJ ISTAK

Victoria Iraegi

Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

Astelehen-asteazken-ostiraletan: 15:00-19:00

Astearte-ostegunetan: 9:00-15:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

...masaia, makrobiotika,

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Faunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

...zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

...**943 74 37 34**

...nbero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

...tria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

Odi I r f U, I I Cl. **74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

1 • Tel: 943 74 36 56

Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

biaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostequnak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu **943 74 37 04ra**

nola ALDATU diren gauzak!

2002-XI-29



1938. urteko argazkia dugu hau. San Roke auzoko ermita ikusten dugu bertan, garai hartan zen bezalaxe. Estalpea, arkupea eta goiko aldean jantoki antzeko bat dauka. Lehen ohitura izaten zen meza ostean salda eta txorizoa jatea jangela honetan. Bestalde, urtean zehar erromeria egoten zenean ere, jangela hau jan-edana egiteko erabiltzen zen. Ermitaren gehiengo egurrez eгина dago. Aurreko aldean, zelai ederra dauka, eta hemen agertzen ez den arren, bolatokia ere bazegoen. Jende asko joaten zen bertara familia eta umeekin egun pasa. Gure herrian oso estimatuak ziren San Rokeko auzoa eta ermita.



2002. urteko argazki honetan, oso desberdin ageri zaigu ingurunea hau. Ermita bera, erabat aldatuta dago, eta askoz modernoagoa da. Gaur egun paraje honetan, zentral elektriko handi bat ageri zaigu. Zeinek pentsatuko luke garai hartan, horrelakorik ikusiko gendunik! Oraindik ere, jendeak badu familia eta umeekin bertara joateko ohitura, baina ez dira lehenagoko erromeriak egiten. Hala ere, San Roke auzoko jaietan giro alaia egoten da Ermita inguruan. Gaur egun paraje honetan etxebizitza ugari eraiki dituzte, eta herriko ikastetxe garrantzitsuenak ere, auzo honetan kokatu dituzte. Mendizaleak ere, asko pasatzen dira ermita aurretik Karakatera bidean. Gaur egun ere, auzo garrantzitsua da San Roke.

Juanito Gorostiza

eta osagarriak

MADA

ZATOS 1KUSTERA!!!!

Abenduan...

Aukera zabala ETXEKO ZAPATILETAN
prezio - kalitate onena
4 EUROTİK GORA

San Bartolome, 15 (Errosario kalerako pasabidean) Tel.: 943 74 24 76




INTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2. 3.sotoa Ir 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- * IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- * MULTIKOPISTAK
- * FOTOKOPIADORAK
- * PLANOEN BIRREGILEAK
- * ERLOJU INDUSTRIALAK
- * MARRAZKETA MATERIALA
- * INFORMATIK A
- * FAX



BaRRRen

Juan Jose Goikoetxeak bi liburu aurkeztu zituen joan zen azaroaren 23an

"Historia de una Gipuzkoa desconocida" eta "Deportistas de Mendaro" dira lanen izenburuak

Jose Maria Urkia, Real Sociedad Vascongadas Amigos del Pais erakundeko zuzendaria eta Xabier Aranburu idazle eta historiagilea izan ziren aurkezpenean. Txomin Zulaika Mendaroko alkateak beharrezko sarriera eta aurkezpenak egin zituen. Juan Jose Goikoetxea mendarotarra duela lau urte jubilatzen, eta orduetik, idazteari ekin zion. Bi liburu idatzi ditu, eta joan zen larunbatean egin zuen aurkezpena. "Historia de una Gipuzkoa desconocida" izan da lehenengoa. Gaur egun galduta dauden hainbat ibilbide eta txokoren historia kontatzen du liburu honetan. Bere idatzi honen nondik norakak azaltzeko, azaroaren 23an goizeko 10etan ibilbide bat egin zuten. Itziartik Mendarora Santiagoko bidea jarraituz, Itziar, Deba eta Sasiolako elizak ezagutzea zen beraien asmoa. Deialdi irekia zen, baina jendea animatu ez zenez, aurkezpena



gonbidatutako taldeak bakarrik egin zuen ibilaldia. Bigarren liburua, "Deportistas de Mendaro" izenburupean argitaratu du. Mendaro kirolaren sehaska izan dela azaltzen du bertan, kirolari famatu asko eman dituen herria. Kirol desberdinetako partaideak izendatzen dira bertan, besteak beste, aizkolariak, futbolariak, korrikalariak... Liburu hauen edizio lana bere esku hartu du Juan Jose Goikoetxeak, eta biak batera jarri ditu salgai.

Aitor Etxeberriak XVII. BMW pintura sariko urrezko domina jaso du

Irabazlea saritu ostean, hamar margolarik ohorezko domina jasotzen dute, eta horietako bat Aitor Etxeberria mendarotarra izan da aurten. Estatu mailan izen handiko lehiaketa da BMW saria. Partaidetza handia izaten da beti, eta aurten errekorra hautsi du. Tendentzia, teknika eta estilo guztietako 732 lan aurkeztu dituzte. Aitorrek "Abstrakzioa-irudimena" izena jarri dio bere lanari. Berak esan bezala, "bata bestea izan daiteke, biak elkarrekin doaz". Duela hiru urte, hartu zuen parte Aitorrek lehenengo aldiz lehia-



keta honetan, eta orduan 30 onenen artean sailkatu zen. Aurten ordea, Espainiako Erreginak ohorezko domina eman dio.

Kilimon Elkartearen bilera

Azaroaren 21ean, Kilimon Elkartearen bilera izan zen Mendaroko udaletxean. Zuzendaritza berria osatzeko lanetan ari dira, eta honekin batera, datorren urterako futbol talde berria sortu nahi dute. Elias Arriola presidenteak esan digunez, oraindik ez dute erabakirik hartu: "Goiz da oraindik ezer esaten hasteko, baina datorren denboraldirako talde berria osatzea da gure helburua". Bestalde, Ospas-Gain zaharraren orde, 2004. urterako belar artifizialeko futbol zelaia eraikitzeko proiektua martxan da. 100x65 neurrikoa izango da, eta tribuna, aldagelak, taberna... eraikiko dituzte. Guztira 160 milioi pezetako aurrekontua izango du proiektuak. Kilimon talde berria osatzeko jendea behar dute, eta herriko gazte guztiak animatu nahi dituzte.

Erakusketa Mendaroko Udaletxean

Datorren abenduaren 15etik 30era Mendaroko herria nola aldatu den azaltzeko, erakusketa antolatu du Udalak. Mendaroko herriaren aldaketan erakusgarri, 1970. urtetik gaur egunera arteko eboluzioa islatu nahi dute. Erakusketa Udaletxeko Arno-Otaerre aretoan izango da, eta bisita orduak, 17:30etik 19:00etara izango dira.

Jubilatuaren Egoitzako loteria

Lagun Betikoak Jubilatuaren Egoitzako bazkideek, abenduaren 8a baino lehen jaso beharko dituzte Gabonetako loteria boletoak. Egun horretatik aurrera, publiko guztiarentzat jarriko da salgai.

VIII. Kontsezio azo

DATORREN ABENDUAREN 14AN IZANGO DA KONTSEZIO

Kontsezio azoka tradizio bihurtu da mendarofarrentzat. Zortzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta urtero bezala, baserriko produkturik onenak ikusi eta probatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Adituen esanetan, aurtengo uda txarra izan da baserriko produktuentzat eta, ezti

gutxi ega kolatea e gazti era banatuko



Debemenek, Debabarreneko Mendi Nekazari Elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta, VIII. Kontsezio azoka izango da datorren abenduaren 14an. Hasieran, Konstituzio-ko zubian izaten zen azoka, baina iaz aldatu egin zuten eguna, eta aurten ere horrela mantendu dute. Debemeneko arduradunak, Agurtzane Etxanizek azaldu digu aldaketa honen zergatia: "Konstituzio-ko zubian jende asko kanpora joaten da, eta gero eta jende gutxiago etortzen zen Mendarora. Iaz astebete atzeratu genuen, eta harrera ona izan zuenez, aurten berdin mantendu dugu".

Mendaroko azokara hurbiltzen direnek, denetarik aurkituko dute. "Produktu mota desberdinak biltzen saiatzen gara", esan digu Agurtzane. Batetik barazki eta fruituen postuak egongo dira, eta barazki ekologikoak ere aurkituko ditugu, hau da, inolako botikarik gabe landutako barazkiak. Badirudi aurten sagar ugari dagoela, baina uda txarra izan dugunez, ezti gutxi omen dago. Bestalde, ogia, pastelak, gazta eta Mendaroko txokolatea ere egongo dira. Honetaz gain, artisauak ere ez dira faltako. Batzuk artilea egiten, zestogintzan beste batzuk, eta zeramika lantzen ere ari-tuko dira. Honekin batera, hegazti eta ganadu erakusketa ere izango dira. Agurtzane-
nek esan digunez, mota guztietako maliak eramaten dituzte: "Astoak, zaldiak, behi mota desberdinak, ardiak, txerriak...". Iaz emuak eta oreinak ekarri zituzten lehenengo aldiz, eta ziurrenik aurten ere egongo dira.



Agurtzane Etxaniz, Debemeneko arduraduna.

Erosteko ohiturak

Erosteko ohiturak asko aldatu dira azken urteotan. Gaur egun gazte jendeak ez dauka azokan erosteko ohiturarik, eta ez du baserriko lana apreziatzen. Agurtzane-
nek esan digunez, baserriko produktuk kalean ezagutaraztea da azokaren helburu nagusia: "Baserrietan kalitatezko produktua lantzen da, eta kontsumitzaileari erakutsi nahi diogu". Azoka egunean jendea bertara hurbiltzeko erraztasunak ematen zaizkiola azaldu ziguten: "Normalean merkatu plazara joateko zailtasunak izaten dira, ezinduentzat ez dira prestatuak egoten, eta umearen karoarekin ere, ezin izaten da sartu. Azoka, ordea, kalean izaten da, eta jende guztiak dauka bertara hurbiltzeko aukera".

"Baserrik o produktuak kalean ez agutaraztea da azokaren helburua"

AZOKA MENDAROKO FRONTOIAN

da azokan. Hala ere, barazki, fruta, ogia eta Mendaroko txokolatea faltako Kontsezio azokan. Honetaz gain, ganadu eta herriak ere izango dira, eta Mendaroko Udalak salda eta txarizoa

Azokako partaideak

Urtero-urtero antzerako partaideak etortzen dira azokara. Agurtzanek esan digunez, gehienek errepikatu egiten dute: "Azoka antolatzen hasten garenean, lehenengo aurreko urteko partaideei deitzen diegu, eta norbaitek ezetza ematen badigu, ordezkoa topatzen saiatzen gara. Gehienetan denek errepikatzen dute". Saltzaileak oso gustura egoten direla gaineratu du Agurtzanek: "Azokara etortzeagatik dieta fijo bat ordaintzen zaie, eta honetaz gain, saldutako produktuekin ateratako diru guztia beraientzat izaten da. Askok diru mordoia irabazten du azokan". Esan digutenez, ogia, pastela, eta etxean eginiko produktuak dira gehien saltzen direnak, baina barazkiak ere asko saltzen omen dira.

Mendaroko partaide gutxi izaten da azokan. Barazkien atalean Lasalde baserria izaten da bakarra, eta oso ondo saltzen omen du. Herriarra izanik, jende askok ezagutzen du, eta konfidantzazko produktuak erostea errazagoa izaten da. Debemnekoek, Lasalde baserrikoari gertatuako bitxikeria bat kontatu digute: "Lasalde baserrikoak, azokara jaitsitako guztia saldu zuen behin, produkturik gabe gelditu zen, eta


"Aurten sagar asko omen dagu, baina ezta oso gutxi"

etxera joan behar izan zuen gehiagoren bila". Animalien atalean, normalean etortzen dira mendarotar gehiago, baina aurten oraindik ez daukate konfirmatufik.

Eguraldia oso garrantzitsua izaten da egun honetan. Kontsezio azokan hotz handia egiten du normalean, eta horrek jendea atzera botatzen du. Bisitari gehienak herriarrak izaten direla azaldu digu Agurtzanek: "Mendaroko azoka txikia da, azoka herriarra dela esan daiteke eta kanpotik ez da jende askorik etortzen". Eskualdeko azoka guztiak bata bestaren atzetik izaten dira. Sorluzekoa lehenengo, Eibarko San Andresetakoa ondoren, Mendaroko Kontsezio azoka, Mutrikuko Santo Tomas azoka, Elgoibarko Gabon Zahar Feria eta azkenik Debako Zoro Feria urtarrilean. Agurtzanek esan digunez, ez dira elkarren arteko kompetentzia:

"Azoka txikiak dira, eta herriko jendea gerturatzeko da gehienbat. Elgoibar eta Eibarko azokek izen handiagoa daukate, eta kanpotik ere etortzen da jendea".

Mendaroko Kontsezio azoka izen gutxikoa eta txikia izan arren, azoka arrakastatsua izaten da, eta aurtengoa ere, ziur izango dela.



AZOKA DATUTAN

Produktuak	14 postu	Barazkiak, fruta, ogia, pastelak, gazta, Mendaroko txokolatea...
Animatiak	10 postu	Astoak, zaldiak, txerriak, behiak, emuak, oreinak...
Artisauak		Artisau eta zeramika postuak ere egongo dira.
Gehien saltzen direnak		Ogia, pastela eta etxean eginiko produktuak.

OHARRA

Mendaroko erretratu zaharrak behar
attugu. meseaz aettu 94.5 /4 41 IL
telefonora eta gu joango gara
argazkien bila.
Eskerrik asko.

Erretratu Zahar



Iabete honetako erretratu zaharra Isidoro Mugerzak laga digu. Bere gurasoen ezkontzako argazkia da. 1923. urtean, gaur egun bizi diren Goiko-Etxe baserriaren goiko aldean aterata dago. Isidorok berak esan digunez, erretratuan ageri diren zuhaitzak, oraindik tente-tente daude bertan. Gogora dezagun zein diren ezkontza hartara hurbildu ziren senitartekoak.

Goiko ilaran zutik: Frantzisko Ulazia (t), ezezaguna, Jose Maria Iriondo (t), Jose Urizar (t), Jose Urbieta (t), Martin Arrieta (t), ezezaguna, Maria Etxezarreta (t), Pedro Iriondo (t), ezezaguna, ezezaguna, Bonifazio Etxezarreta (t), Martin Ulazia (f), Juan Jose Andonegi (t), Inazio Zubiaurre (t), **Maria Iriondo (t)**, **Manuela Agirregomezkorta (f)** eta bere alaba besoetan, Santi Urain (t), Elias Andonegi (t), Frantzisko (t), ezezaguna, ezezaguna, Garagarza soinujolea (t), ezezaguna, Concepcion Etxenagusia (f), Leona

Agirregomezkorta (t), Jose Soarte (t), ezezaguna, Juana Mugerza (t), Maria Guenaga (t), ezezaguna, Juana Guenaga (t), ezezaguna, Fratziska Guenaga (t), ezezaguna, ezezaguna eta Meliton Agirregomezkorta.

2. ilaran: Frantzisko Mugerza (t), Pedro Mugerza (t), Eulogio Mugerza (t), Manuela Agirregomezkorta (t), Bixente Mugerza (f), birramama (t), Jose Mugerza (f) eta Maria San Martin (t) (ezkon berriak), Bixente San Martin (t), Manuela Guenaga (t), Inazio San Martin (f) eta Bittori San Martin (+).

Behean: Jose Antonio Iriondo (t), Ramona Ansola (t), Inazio Iriondo, Juli Ulazia (t), Josefa Mugerza (t), Maria Mugerza (t), Cesareo Andonegi (t), Teresa Ulazia, Tomasa Iriondo, Jose Manuel Ansola (t), Jose Etxezarreta (t), **Santiago Agirregomezkorta (t)**, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Isidro Larrañaga (t), ezezaguna, Fidela Iriondo eta Pedro Ulazia.

informazioa

	EGUNEZ	GAUEZ
29	Yudego	Yudego
30	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Zabaleta
1	Zabaleta	Zabaleta
2	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
3	Ibañez	Ibañez
4	Bidasolo	Bidasolo
5	Etxeberria (Santa Ana kalean)	Zabaleta
6	Ibañez	Ibañez

FARMAZIAK
 ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38
 FERNANDEZ,
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84
 *eguerdiko 2ak arte

OKINDEGIA
1 igandea Doña Mercedes

Eusko rren

DONOSTIA-BILBO
 Egunero
 Donostia kmARA 5.45 06.45... 20.45
 Elgoibar 07.02 08.02... 22.02
 * jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
 Egunero
 Bilbo 06:00 7.00... 20.00
 Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
 jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

Eusko Tren

MENDARO-ELGOIBAR
 Egunero
 Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
 Astegunetan
 Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jakgunetan
 Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

LARUNBAT GAUA

PESOAUTOBUSAK

EIBAR-ONDARROA				
Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

ONDARROA-EIBAR				
Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Deba	23.45	01.45	03.45	05.45
Flgoihar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

ELBAR-MUTRIKU				
Eibar	01.00	02.30	01.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Deba	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

MUTRIKU-EIBAR				
Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eibar	00.25	01.55	03.55	05.55

EIBARAZPEITIA				
Eibar	01.30	03.30	05.30	
Elgoibar	01.40	03.40	05.40	
Azkoitia	01.50	03.50	05.50	
Azpeitia	01.55	03.55	05.55	

AZPEITIA-EIBAR				
Azpeitia	00.30	02.30	04.30	
Azkoitia	00.35	02.35	04.35	
Elgoibar	00.45	02.45	04.45	
Eibar	00.55	02.55	04.55	

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. TeL 902 101 210.

INTERE EK TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatona	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emalleak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32

Institutua

Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
I kastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetna	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73

El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Naia Membrillera eta Laura Vegas Durangoko VI. Soinu txapelketan izan ziren

Durangoko Extremadura Elkartek antolatuta, "Durango Herria" soinu txapelketa ospatu zen joan zen azaroaren 16 eta 17an. Larunbatean sailkapen txanda jokatu zen, eta igandean final nagusia. Naia Membrillera 10-11 urte bitarteko taldean hartu zuen parte, eta laugarren postuan sailkatu zen. Derrigorrezko atalean, T. Falloneren "Petite Filles" obra jo zuen, eta aukera librekoan L. Ravasioren "Piccolo Prigionero". Laura Vegasek berriz, 12-13 urte bitarteko taldean hartu zuen parte, eta bigarren saria irabazi zuen. Derrigorrezko obra moduan, F. Basile eta J. Carrayren "L'Exincourtoise" obra jo zuen, eta aukera askekoan J. Draegeren "Ouverture Classique".



Naia Membrillera eta Laura Vegas, azken honek irabazitako sariarekin.

ESKOLA KIROLA

AGENDA

Azaroak 30, 5. Jardunaldia

SASKIBALOA, Herri Eskolan

■ Infantil mutilak ■

9:45 Insti A- Ikastola B

10:30 Insti B- Ikastola B

Pilar A (Atsedena)

■ Infantil neskak ■

11:15 Insti A- Ikastola B

10:30 Pilar B- Ikastola A

Pilar A (Atsedena)

FUTBOL 7, Mintxetan

■ Benjaminak ■

10:00 Pilar D- Herri Eskola B

10:30 Mendaro A- Ikastola A

11:00 Ikastola C- Ikastola E

11:30 Pilar C- Herri Eskola A

12:00 Pilar A- Herri Eskola C

12:30 Ikastola B- Ikastola D

ESKUBALOA, Pilar ikastetxean

111 Alebin mutilak ■

9:00 Ikastola C- Ikastola A

9:45 Ikastola B- Herri Eskola B

10:30 Pilar A- Herri Eskola A

11:15 Pilar B- Herri Eskola B

■ Alebin neskak ■

12:00 Pilar A- Ikastola A

12:45 Pilar B- Herri Eskola

Ikastola B (Atsedena)

Santa Zezilia eguna ospatu zuten Musika Eskolan

Joan zen azaroaren 21ean, Santa Zezilia eguneko kontzertua eskaini zuten Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek. Musika eta dantza funtzioa izan zen. Bakoitzak bere instrumentua jo zuen. Ez ziren falta izan piano, bibolin, gitarra edota saxofoi doinuak Musika Eskolako Auditorioan. Honetaz gain, neska bikote batek, trikitixa emanaldia eskaini zuen. Urtero bezala, auditorioa txiki gelditu zen. Irakasle, guraso, ikasle eta hauen lagunek musikaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten.



Ikastolako umeek Santa Zezilia omendu zuten

Musikarien patroia omendu zuten joan zen azaroaren 22an Ikastolako umeek. Goiz eta arratsalde kalejira egin zuten, Elgoibarko kaleak musikaz alaituz. Goizean goiz, Plaza Handitik atera eta hainbat pieza ezberdinekin esnatu zituzten bizilagunak. Arratsaldean, berriz, kontrako ibilbidea egin zuten. Ikastolatik irten, eta San Frantzisko kalea pasatuz, Errosario kaletik Plaza Handira iritsi ziren. Ikastolako musikari gaztetxoek ez ezik, herriko beste talde batzuetako kideek ere, musika tresnaz zein ahotsez jantzi zituzten bazterrak joan zen asteburuan Santa Zeziliaren omenez.

Pedro Sodupe "Gelatxo"-k Nazioarteko Trikitixa Jaialdian hartu zuen parte

Valsa eta pasodoblea jo zituen soinu handiarekin

Nazioarteko Trikitixa jaialdia izan zen joan den larunbatean Donostiako Kursaal Jauregian. Elgoibarrek izan zuen ordezkariarik bertan. Izan ere, Pedro Sodupe "Gelatxo" soinu handia hartuta igo zen Kursaalera tabladura. Bi urte dira "Gelatxo" kanpoan soinua jotzen ikusi ez dugula, baina horrelako gonbiteari ezingo zion bada uko egin. Pedro bera ezezik, bere aita zenak ere izan du lekurik jaialdian, berau iragartzeko kartelean agertu baita.

"Gelatxo"-k vals bat eta pasodoblea eskaini zizkien bertan bildutakoei. "Nik trikitixa pieza batzuk jotzeko asmua nakan, sarritan erromerixetan soinu haundixakin bazan ere trikitixa jotzen genduan-eta. Baina



aldatziarren beste zeozer jotzeko eskatu zien eta holaxe ein naban", esan digu Pedro Sodupek.

Euskal Herriko trikitilarietz gain, Italia, Katalunia eta Kolonbiatik etorritakoek ere hartu zuten parte eta Pedro Sodupek hauek entzuteko aukera ere izan zuen. "Batzuk entzun nitxuan eta instrumentua trikitixa eta panderua izan arren, beste klase bateko piezak jotzen ditxue", esan digu.

Giro ona izan zela eta jende asko bildu zela kontatu digu "Gelatxo"-k. Kursaalera joan ez eta trikitixa entzuteko gogoia dutenek edukiko dute jaialdiaz gozatzeko aukerarik telebistaz emango baitute. Beraz, herritarrok berriz ere "Gelatxo"-ren soinu hotsa entzun ahal izango dugu.

Herriko 2 abesbatzek eta Bandak kontzertu banarekin ospatu zuten Santa Zezilia

Inazio Bereziartua musikaria omendu zuten bandaren emanaldian

Santa Zezilia Eguna musika doinuz ospatu zuen herriko hainbat taldek asteburuan. Ostiralean, Itxaropena abesbatza aritu zen kantari udaletxeko arkupeetan Judit Murciaren aginduetara. Abesti herrikoiak zein beste hizkuntzetan kantatutakoak eskaini zizkieten bertaratu ziren herritarrei. Larunbatean Parrokiako abesbatzak hartu zion erreleboa eta mezatan abestu zuen. Perossiren Bigarren Meza Pontifikala izan zuten entzungai San Bartolome Parrokiara joandakoek. Bestek beste Tchavcovskiren Santa Maria eta Bacghen kantata abestu zituzten.

Musika Banda

Igandean Musika Bandak kontzertu berezia eskaini zuen. Santa Zezilia Eguna ospatzeaz gain, Inazio Bereziartuari omenaldia egin zion bandak bere etorreraren 100. urteurrenaren. B ereziartu aren alabak oroigarri bat jaso zuen alkatearen eskutik. Gainera, kontzertuan Bereziartuak Bartolome Gorrotxategi "Plantillerito" torero elgoibartarrarentzat



konposatutako pasodoblea eskaini zuen bandak eta "Plantillerito" beraren bilobak, Jose Arregik, bonboa jo zuen.

n < 41 • JOSE IN; dtu <, as
(Txema)

**Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoak, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia


Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 IP 943 74 33 92

ZUHAITZ GURRUTXAGA, REALEKO JOKALARIA

"Futbolian egun batien goixan zaude, eta hurrenguan behian"

Gauzak ondo doaz Realean. Talde txuri-urdina Ligako lehenengo postuan dago, eta oraindik ez du norgehiagoka bat bera ere galdu. Baina futbolaren mundua krudela da, eta ez dago guztientzat lekurik. Oraingoan Zuhaitz Gurrutxagari tokatu zaio garaipenaren alde burrean egotea. Reala puntaren puntan dabilen bitartean, Elgoibarko jokalaria bere aukeraren zain dago oraindik. Badirudi entrenatzaile berriak ez duela berarentzat lekurik aurkitu taldean, baina guk egin dugu tartetxo bat gure aldezkarian. Zuhaitzekin solasean izan gara, eta gauza interesgarri ugari kontatu digu.



Realak oso ondo hasi du denboraldia, hala ere, zure egoera pertsonala ez da onena. Zer moduz zaude? Ez jokatzekotan, hobe da hola egotia. Iaz ere ez naban jokatu, eta egoeria txarraua zan. Tenporada guztixa atzian pasau genduan, eta aukeran, aurten hobeto nao. Taldian oso pozik gaude, baina danok jokatzia nahi dogu, eta ni ere askoz gusturago egongo nitzan jokatzin.

Zer egin dezakezu postu bat lortzeko? Momentu honetan, realista izan bihar da, eta badakitx postu bat lortzia oso zaila dala. Ekipua oso ondo dao, lehenenguk guaz, eta lesioren bat edo tarjetak ez badia, ez da aldaketa haundiegirik egongo.

Noiz arte daukazu Realarekin kontratua? Denboraldixa amaitzen danielan bukatzen jata kontratua. Partidu kopuru minimo bat jokatu gero, automatikoki berritzeko aukeria dao.

Ikusten al duzu zure burua Realetik kanpo? Tenporada hasieran esan zaben, Eibarrera edo 2. mailako beste talderen batera jungo nintzala. Neretzat lekurik ez badao, ondo begiratu biharko nuke beste aukeria, eta ez nuke gaizki ikusiko. Realian jarraitxu bihar badot, dana emango dot, jokatzeko aukeria etorri arte.

Defentsari egin zaizkion kritikak konpartitzen al dituzu? Ez. Gol asko jaso ditzugu, baina errua ez da defentsena

bakarrik. Gol asko sartu ditzugu, asko aniskatzen dogulako, eta hori atzian igarri eitzen da, baina ekipo guztixak defenditzen du, eta danok gera errudunak.

Badirudi taldea ez dela asko aldatu, baina askoz hobeto ari da jokatzin. Zein izan da aldaketa honen klabea? Oin momentuan gehixen entzuten dian bi aurrelarixak, Kovacevic eta Nihat, iazko abenduan ailegau zian, eta aurten tenporada hasieratik daude jokatzin. Oso ondo dabiz, gol asko sartzen ditzue eta ekipuak asko igarri dau.

"Europar sartzia ondo egongo litzake, baina oraindik goiz da ezer esateko"

Aurrendenboraldian Reala lehenengoa izan zen entrenamenduak hasten. Horrek izan al du eraginik? Bai, Suizara jun ginan, lan fisiko gogorra ein genduan, eta taldea fisikoki oso ondo dao. Ikusi ein biharko da denboraldi amaierara arte mantentzeko gai geran, baina momentuz gauzak ondo duaz. Jokuaz aparte, beste ekipuak baino puntutxo bat gorao gaizko fisiko aldetik.

Zer aportatu di7Ue entrenatzaile berriak? Lan eitzeko modu desberdin bat. Ixila da,

problema gutxi sortzekua eta bere lanian oso zentrauta dao beti.

Clementerekin debutatu zenuen. Zein oroitzapen dituzu? Hiru urte pasau dia dagoeneko, baina oso oroitzapen onak ditzut. Nere momenturik onenak orduan bizi izan nitxuan. Orduetik aurrera ez dot suerte askorik euki. Danok dakigun moduan, futbolian egun baten goixan zaude, eta hurrenguan behian.

Komunikabideetan Realak daukan presentzia nahikoa iruditzen al zaizu? Egixa esanda, Estatuko komunikabideetan ez digute alabantza haundiegirik ein. Gaizki egon ginanian ematen ziguten egurra, eta oin ere, merezi doguna eman biharko ligukete.

Zer egiten duzu denbora librean? Lagunekin egotiaz aparte, gitarria jotzen ikasten ari naiz. Tikitixa ere noizian behin jotzen dot, batez ere, jotzen badakitela demostratzeko. Inglesian apuntau nintzan, baina Opening-eko asunto hori tokau jatan, eta bertan behera laga naban.

Noraino iritsi daiteke aurten Reala? Ondiokan goiz da ezer esateko, baina ez da kasualidadia ekipua hor goixan egotia. Europar sartzia ondo egongo litzake, eta espero dogu behintzat, jaitsiera atzian lagatzia.

23 urtez azpiko Espainiako Judo Txapelketa irabazi du Egoitz Morak

Orain arte lortu duen garaipenik garrantzitsuena da

Hainbat garaipen lortu ditu Egoitz Mora 20 urteko gazteak judo munduan, baina azkena modukoak gutxi. Junior mailako Espainiako txapeldun izana da behin eta txapeldunorde hirutan, baina 23 urtez azpiko Espainiako Txapeldun izateak meritu handia du. Orensen lortu zuen Egoitzek titulua azaroaren 23 eta 24an. Oraindik ez duela asimilatzeo astirik izan aitortzen du. 90 kiloz azpiko kategorian lehiatu zen eta estatuko 16 judokarik onenak izan zituen aurrez aurre tatamian. Final zortzirenetan madrildar bat izan zuen aurkari eta aise gairiditu zuen. Finalaurdenetan asturiar ordezkaria gairiditu zuen eta finalurrekotan aspaldiko lagun batekin topo egin zuen, Jonathan Delgado madrildarrarekin, "judoka honek beti irabazi izan dia Espainiako Txapelketetan. Galtzen zabana finaletik eta zirkuitok kanpo gelditzen zanez dana ematera irten ginan Tatamira. Hasieran parekauta jun ginan, baina erritmua igo eta justu izan bazan ere irabazia lortu naban". Finalean Jorge Ribeira junior mailako Espainiako txapeldunaren aurka borrokatu zuen. "Galtzen hasi nintzan, baina lagun eta



Esteban Arrillaga entrenatzailearekin batera ageri da Egoitz Mora.

batez ere entrenatzailean animuei esker konbatiari buelta eman eta irabazia lortu naban. Garaipen hau Esteban Arrillaga entrenatzaileari, gurasuei, taldekideei eta lagunei eskeini nahi diet". Orain Europako hainbat judo txapelketetan hartuko du parte senior mailako Espainiako judo selekzioarekin.

XII. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa abenduaren 12tik 20ra jokatu da

Euskadiko Xake Federazioak, Elgoibarko Kirol Patronatuak eta Zubi Ondo Xake Elkarteak antolatutik, abenduaren 12tik 20ra jokatu da, Kultur Etxean, XII. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa. Aurreko edizioetako hainbat irabazle hartuko dute parte aurten, Elizbar Ubilaba georgiarrak, Oleg Korneev errusiarrek edo Mario Gomez eta Felix Izeta euskaldunek. Txapelketaren aurkezpena abenduaren 12an, ostegunean, izango da Kultur



Oleg Korneev (ezkerrean) azken bi urteetako irabazlea.

Etxean, 13:00etan, eta jarraian, 16:00etan emango zaio hasiera txapelketari. Partidak, egunero 16:00etatik 22:00etara izango dira

EMAITZAK

Futbola

Haundi 1- Zarautz 3 (Pref.)
Elgoibar 0 - R. Sociedad 8 (Inf.)
Elgoibar 0 - Urki 3 (Neskak)
Ilintxa 6 - Elgoibar 2 (1. erreg.)
Idiazabal 0 - Elgoibar 2 (Jub.)
Tolosa 1- Elgoibar 1 (Kad.)
Pedrusko 4 - Orioko 0 (1. erreg.)

Areto Futbola

Metales S. Jorge 6 - Kenci Elg. 3 (Nazional A)
Lanbroa 5 - Transportes Lacunza 6 (1. maila)
Lojantzi 8- Goierri A 4 (Jubenilak)

Eskubaloia

Gipuzkoako Txapelketa
Tecnomeca Elg. 17 - Corazonistas 22 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 37 - Corazonistas 18 (Jub. mut.)
Tecnifuelle Elg. 22 - Ereintza 18 (Senior mut.)
Aloña-Mendi 20 - Gaur Elg. 21 (Jub. mut.)
Ereintza 18 - Sanlo Elg. 15 (Senior nesk.)
Zuazo Baracaldo 4 - Pagoaga Elg. 30 (Kad. nek.)
Zuazo Baracaldo 25 - Cometel Elg. 12 (Jub. nek.)

Saskibaloia

Lojantzi S.T 43. Aloña Mendi 50

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Ulazia/Iriondo 22 (Lagunak)
Zubiarain/Zulaika 1
Azkarate/Azkarate 22 (Aloña-Mendi)
Portu/Txurruka 7
Euskal Jolas 18
Lagunak 8 (Inf.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 30
16:00 Elgoibar - Ordizia (1. erreg.)
17:45 Elgoibar - Oiartzun (Jub.)
Domekia, 1
10:30 Elgoibar - Aitzgorri (kad.)
12:00 Elgoibar - Bergara (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Zapatua, 30
17:30 Sanlo Elg. - Zarauz (Senior nesk.)
Domekia, 1
11:00 Pagoaga Elg. - Urdaibai (Kad. nesk.)
12:30 Cometel Elg. - Urdaibai (Jub. nesk.)

Saskibaloia

Zapatua, 30
19:00 Elgoibar S.T- Bolsos Bergara

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapatua, 30
16:00 Kenci Elg. - Xota B (Nazional A)

Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 29
21:30 Lagunak II - Euskal Jolas (Inf)
22:00 Lagunak I - Zumaia (Inf.)
22:30 Lagunak- Igeldo (Kad.)

0/114 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durungaldeko enpresak **zuzendari komertziala** behar du. **Erref. 92748/1**

Marketingeko enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 92769/2**

Durungaldeko enpresak **ingeniari elektronikoa** behar du. **Erref. 92747/2**

Durungaldeko enpresak **mentenimeturako elektromekanikoa** behar du. **Erref. 92746/1**

Durungaldeko enpresak **delineantea** behar du. **Erref. 92536/3**

Durungaldeko enpresak **ajustadorea** behar du. **Erref. 92534/3**

Durungaldeko enpresak **administraria** behar du. **Erref. 92319/1**

Donostialdeko enpresak **kalitate arduraduna** behar du. **Erref. 92011/2**

Donostialdeko enpresak **ikertzailea** behar du. **Erref. 91990/2**

Donostialdeko enpresak **obra arduraduna** behar du. **Erref. 91988/2**

Donostialdeko enpresak **aisialdirako begiralea** behar du. **Erref. 92474/2**

Donostialdeko enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 92193/3**

Donostialdeko enpresak **topografoa** behar du. **Erref. 90964/2**

Donostialdeko enpresak **administraria** behar du. **Erref. 90263/6**

Donostialdeko enpresak **someliera** behar du. **Erref. 91744/2**

Lea-Artibaiko enpresak **sozietate publikorako gerentea** behar du. **Erref. 91802/1**

Markina-Ondarruko aldi baterako enpresak **elektromekanikoa** behar du. **91594/3**

Donostialdeko enpresak **arriku prebentziorako teknikariak** behar ditu. **Erref. 92247/1**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langui-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

Iana

ESKAERA

• Emakumea umeak edo adineko pertsonak zaintzeko prest. **71 639 88 20 04**

• Mutilak buzoneo lanak egingo lituzke. **s 943 74 44 63**

• Mutilak garbiketa lanak egingo lituzke. **s 943 74 44 63**

• Neska euskaidunak umeak zaindiko lituzke arratsalde. **11 943 74 38 94**

• Erizaina eskaintzen da pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko, etxean zein ospitalean. **tr 652 76 86 73**

• Esperientziadun emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. **tr 943 74 22 01**

• Astegunetan arratsaldez lan egingo nuke. **v 637 51 22 24**

• Basarten lanerako pertsona bat eskatzen da. Boldintza ezin hobeak. **tr 637 51 22 24**

ESKAINZA

• Amaiak ekarriko du lan eskaintza. **Tr 943 74 02 41**

• Gasolineran mutil bat behar da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko. **v 943 74 02 41**

• Neska bat behar da arratsaldez umeak zaintzeko. **a. 943 74 04 46**

• Neska euskalduna behar da gabonetako kanpainan poltsa denda batean lan egiteko. Curriculum-a San Frantzisko kaleko 43an utzi.

• Neska behar da orduka etxea garbitzeko. **tr 666 68 05 50**

♦ Pertsona bat behar da CNCko fresadoran lan egiteko. **v 605 70 14 29**

Etxebizitzak

• Neska arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Ahal bada amueblatuta. **72 659 51 57 41 (Begoña)**

♦ Hiru edo lau hilabetetarako pisua hartuko nuke alokairuan. **s- 658 74 55 23**
tr 943 74 12 05/ 943 74 36 50

• Larunbatetarako logela bat hartuko nuke alokairuan. **s- 658 74 55 23**

• Hiru logelatako etxea alokatzen dut Elgoibarren. **tr 943 74 27 47 (20:00-21:00)**

• Etxea salgai Kalamua 2, kalean. 100m'. **s. 649 25 90 51**

• Logela bat alokatzen dut. **zr 943 74 18 81**

Salerosketak

• Kotxea salgai. Diesel. Merkea eta egoera onean. Extrekin. **s. 943 76 07 26 (lan orduetan)**

71 606 85 07 85

• Kenwood KRC-179R radiocasset-a salgai. 40x4 watt. 5 preekualizazio, mute, 18 emisorako memoria. Karatula kengamia. Berria (bi hilabete), 90 watt-eko ALPINE bozgorailu. **s. 652 71 84 34**

• Opel Zafira TDI salgai. **tr 659 77 72 27**

• Urkotronik markako goxoki makina salgai. Urte eta erdi. Temperatura bikoitza. Merkea. **s 655 71 29 59**

• Keroseno txuriko berogailua salgai. Bi urte. 90 euro a **660 08 47 38**

• 2. eskuko ziklotore merkea erosi-ko nuke. **v 647 25 47 51**

• Bebe car, haurrentzako aulkia salgai. Kapazoa, aulkia eta osagarriak. **tr 943 74 05 54**

• Opel Calibra 2.0i salgai. 46.000 km, motor berria, extrak. SS-3227-AP **lr 651 70 07 54**

Garajeak

♦ Garajea hartuko nuke alokairuan Ikastola inguruan. **tr 669 09 45 05**

• Garajea alokatzen da Leku Ederren. 4. solairuan. 42 euro murraduna eta 48 euro itxia. **s 660 04 21 59**

• Garajea salgai Leku Ederren. **s 943 74 17 14**

• Garaje murraduna salgai Arregitorren. Prezio interesgarria. **tr 943 74 07 62/609 40 25 86**

Bestelakoak

• Sofa eta salarako mahaia hartuko nuke. **v 606 70 99 23**

• Zilarrezko eraztun bat galdu dut Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean. Harri lila bat du. **72: 637 51 22 24**

Partikularrak

o Klase partikularrak ematen ditugu. **s 616 05 99 86/625 42 05 49 (Olatz eta Bidatz)**

• Klaseak emango nizkieke 16 urte arteko umei. **s 943 74 27 78 (Saioa)**

OHARRA:
Merkatu txikirako
 mezuak ekartzeko azken
 eguna asteazken
 eguerdiko 13:30a da.

Elgoibarko Gazte Informazio Gunea
 Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
 Tel. 943 741 461

Ordutegia:
 Astelehen-ostirala: 17:00-20:00
 Larunbata: 10:00-14:00

BEAK

Euskarazko literatura-sorkuntzarako beka

Joseba Jaka beka Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eskutik. Helburua euskararen eta euskal kulturaren sustapena eta modu eraginkorrean bultzatzea da. Epea: ahenduak 19.

Informazioa eta komunikazioa

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Informazioko eta Komunikazioko Teknologien Prestakuntzako beka atera ditu. Epea: abenduak 2.

IKASTAROAK

Elkarteen dinamizazioa

Hekide Eskolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarteen dinamizazioari buruzko ikastaroa antolatu dute. dirua irabaztea helburutzat ez duten elkarrentzat. Ikastaroak 4 modulu izango ditu: bilera efektiboak eta taldeko erabakiak, elkarreentzako kanpo komunikazio tailerrak, interbentzio proiektuen planifikazioa eta informatika. Epea: urtarrilak 30.

Bizildetaren mekanika

Donostian egingo den bizikletaren mekanikari buruzko ikastaroa. Donostia Berri Elkarrean antolatutako ikastaroa, astean lau egunez izango da. Urtarrilaren 13tik 30era. Epea: plazak bete arte.

LEHIAKETAK

Fantasiako ipuin eta marrazki lehiaketa

Sestaoko Gaztelekuak Fantasiako Ipuin eta Marrazkien VII. lehiaketa antolatu du. Obrak euskaraz nahiz gaztelez aurkeztu daitezke, eta gaia librea da. 13 urte baino gehiago izatea beharrezkoa da. Epea: ipuinak abenduak 5, marrazkiak abenduak 7.

Kartel lehiaketa

Gasteitko Nazioarteko XXVIII. Antzerki Jaialdiaren kartela iragartzeko kartel lehiaketa. Teknika librea izango da. Epea: martxoak 3.

LANA

Disneyland parkerako lanpostuak

Frantztan kokaturiko "Disneyland" eta "Walt Disney Studios" parkeetan pertsonaia eta animazio gisa lan egiteko jende aukeraketa. 18 urte baino gehiago izatea eta ingelesa edo frantsesa ondo jakitea eskatzen da. Epea: abenduak 7.


1 1 1 1 1 3 / . 2 : 1 1 1 4

Tel.: 943 74 14 61
 E-posta:
 biluzikzerbitzu@ yahoo.com)
 Astelehenero 17:00-20:00
 Gazte Informazio Gunea
 Kultur Etxea

Biluzik
 SEXOLOGIA ZEROITZUA

Agurrak

• Zorionak **Begoña** eta **German**, azaroaren 26an zilarrezko eztejak bete zenituztelako. Jarraitu horrela eta ondo pasa! Familia-koak.



• Zorionak **Urtzi**, gaur 8 urte bete dituzulako. Ondo pasa lagunekin. Belarri tirakada handi bat gurasoen eta bereziki, An-doniren partez.



• Zorionak **Iñigo Armendiari**, abenduaren 3an 4 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki bere arreba Noraren partez.



• Zorionak **Maite**, izugarri maite zaituen zure familiako partez. Maria Jesus, Javier, Elena eta Abdel.



• Zorionak **Ane**, zorionak printzesa, abenduaren 8an 7 urte beteko dituzulako. Etxeko eta bereziki, Sara, Esti eta Aniaren partez.



♦ Zorionak **Ekhi-ri**, abenduaren 5ean zure lehenengo urtebetetze eguna izango delako. Familiako partez.



• Zorionak **Iosuri**, bihar larunbata 7 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki, Ainhoa eta Josebaren partez muxu handi bat.

Hiesaren ASTEA

AZAROAK 29, barixakua

20:00 Hitzaldia

"Hiesarekin topatzea: barneko bizipenak"

Gaztetxean

21:30 Kontzertua

Arima Beltzaren azken lana

Herriko Antzokian

AZAROAK 30, zapatua

11:00 Umeentzako jarduerak eta

globoen banaketa eta gaztelu

puzgarriak

Plaza Handian

Atxutxiamaikaren laguntzarekin

Aldi berean, mahai informatiboa eta

lazoen banaketa eta "Biluzik" stand-a

ABENDUAK 1, domekia

Hiesaren eguna

13:00 Omenaldia txalaparta eta

Haritz Dantzari Taldearen

laguntzarekin

Plaza Handian

Ondoren, kontzentrazioa

Goizean zehar, mahai informatiboak

29 BARIXAKUA

13:00 PRENTSAURREKOA

Internet-eko "e-learning IMH" egitarauaren aurkezpena

Makina Erremintaren Institutuko gela digitalean

Ondoren, luntxa

1 DOMEKIA

16:30 "EL SOLDADITO DE PLOMO" TXOTXONGILO

IKUSKIZUNA

Taldea: Theatre Plus Bulgaria

Herriko Antzokian



2 ASTELEHENA

10:00 ELKARTASUN DENDAREN IREKIERA

Errosario kaleko 12an

Antolatzailea: Parrokiko Misioi Taldea eta Coprodeli ONGas



3 MARTITZENA

20:30 GUREAN BAI-MERKATARITZA HITZARMEN PROIEKTUAREN AURKEZPEN PUBLIKOA

Udaletxeko pleno aretoan

Gonbidatua: Perurena



Cd



"Retratos de una obsesion"

Zuzendaria: Mark Romanek.

Antzezleak: Robin Williams

Argazki denda bateko jabeak (Robin Williams), pertsonaia bakarti eta barnerakoia, familia idealtzat jotzen duenarenganako obsesio zoroa garatzen du. Ohiko psycho-killer film bat gehiago moduan igaroko litzateke filma zine pantailetatik, M.Romaneren lan bikainaz gizartearen deskribapen gordina ez balu egingo, eta protagonista, guztiok bizi dugun zortasunaren metafora besterik ez balitz.

PRENTSAURREKOAK

"e-learning IMH" egitarauaren aurkezpena

Internet-eko "e-learning IMH" egitarauaren aurkezpena izango da gaur, azaroak 29, Makina Erremintaren Institutuan. Ikastarook egungo IMH eta IMH birtuala osatzeko estrategiaren pauso bat dira eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko "Informazioaren Gizartea" programa garatzeko politiken barruan kokatzen dira. Eguerdiko 13:00etan hasiko da prentsaurrekoa IMHko gela digitalean. Honako hauek hartuko dute parte prentsaurrekoan: Angeles Iztueta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua. Jorge Arevalo, Lanbide Heziketako sailburuordea. Alberto Ortueta, AFMko Zuzendari Orokorra, Joxean Egaña, IMHko zuzendaria eta Javier Lopez e-learning-eko zuzendaria

Makina Erremintaren Institutuan. Aurkezpenean on-line ikastaroa nola egiten den ikusi ahal izango da zuzenean.

ANTZERKIA

"El soldadito de plomo"

Theatre Plus Bulgaria taldeak "El soldadito de plomo" txotxongilo lana taularatuko du abenduaren lehen, domekan, Herriko Antzokian. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren 20. edizioko egitarauan parte hartu du bulgariar konpainia honek. Beraz, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, txotxongilo ikuskizun bikaina eta ezberdina ikusteko aukera izango da.

AURKEPENAK

Gurean Bai - Merkataritza Hitzarmena

Gurean Bai - Merkataritza Elgoibarko merkataritzan euskararen erabilera indartzeko hitzarmen-proiektua da, Elgoibarko Udalaren eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen arteko elkarlanetik sortua. Elgoibarko 133 establezimenduk esan diote baietz proiektuari. Horrekin euren establezimenduan, ahal den neurrian, euskararen erabilera indartzeko konpromisoa hartzen dute. Aurkezpen publikoa abenduaren 3an (asteartea), 20:30ean, udaletxeko pleno aretoan izango da. Elgoibarko Izarrako presidentea (Befiat Bilbao), alkatea (Guillermo Garate), Txankakua Dendarien Elkarteak ordezkarria (Mari Jose Estibaritz) eta gonbidatu berezi gisa Iñaki Perurena harrijasotzaile eta euskaltzale ezaguna izango dira aurkezpen mahaian.

IREKIERAK

Elkartasun denda

Parrokiko Misio Taldeak, Coprodeli ONGarekin lankidetzan, elkartasun denda irekiko du abenduaren 2tik 5era bitartean. Odria familiak Errosario kaleko 12an laga dien lokalean irekiko dute denda. Bertan, kakaooa, kafea, artisaulanak, e.a. izango dira salgai. Horrela, 3. Munduko produktoreei bidezko prezioak ordaintzeko aukera sortzen da. Modu berean, produktu hauek ekoizten dituzten lurraldeetan beharrezko produktuak finantzatu ahal dira. Dendaren ordutegia honakoa izango da; Lanegunetan: 10:00etatik 13:00etara eta 17:30etatik 20:00etara. Larunbatetan: 10:30etatik 13:00etara.

PIPIP¹ zine

KARTELDEGIA

ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Minority Report"
30, zapatua: 19:30-22:15
1, domekia: 19:30-22:15
2, astelehena: 22:15
"Que nadie duerma" (Zine Kluba)
3, martitzena: 21:30
5, eguena: 22:15
"800 balas"
6, barixakua: 22:15

EIBAR

Unzaga

"Harry Potter y la camara secreta"

29, barixakua: 19:30-22:15
30, zapatua: 17:00-19:30-22:30
1, domekia: 17:00-19:30-22:30
2, astelehena: 19:30-22:15
3, martitzena: 19:30-22:15
4, eguaztena: 19:30-22:15

"007, Muere otro dia"

29, barixakua: 19:30-22:15
30, zapatua: 17:00-19:30-22:15
1, domekia: 17:00-19:30-22:15
2, astelehena: 19:30-22:15
3, martitzena: 19:30
4, eguaztena: 19:30

BERGARA, Novedades

"Dragon Rojo"

29, barixakua: 19:30-22:30
30, zapatua: 19:30-22:15
1, domekia: 19:30-22:15
2, astelehena: 19:30
3, martitzena: 19:30
"El viaje de Carol"
5, Eguena: 20:00 (Z.K.)

BARRNEk ez du gerta litzkeen emanaldien
adlaketen erantzukizunik.



"Minority Reports"

Zuzendaria: Steven Spielberg.

Antzezleak: Tom Cruise, Collin Farrell, Samantha Morton.

Phillip K. Dick zientzia fikziozko idazleak idatzitako testu batean oinarritu da Spielberg maisua filme honetan. John Anderton (Tom Cruise) polizia da 2054. urteko Washington hirian. Zientziaren aurrerapenei esker gaizkile bihurtu baino lehen antzeman eta atxilotu dezake poliziari jendea. Anderton agentea ehiztari izatetik iheslari izatera pasako oraindik egin ez duen hilketa bat dela-eta. Poliziari agente gazte bat saiaturiko da Anderton atzematen zepailen aurrera eramateko.

N



A

ste honetako argazkia Juanita Gabilondok laga digu. 1943an ateratako erretratuan "Dinamo" izeneko koadrilako lagunak agertzen dira. Argazkia herriko lehiaketan jokatu zutenean atera zuten Lerunen. Gehienak jantzi ezberdinekin agertzen dira, ordu hartan ez baitzen denak ekipatzeko adina dirurik egongo. Lerungo zelai zaharrak beste itxura bat zuen orduan, koska eta zuloz betea zegoen. Atzeko partean Karkizaoko aldapa ikus daiteke eta gainean, dotore, izen bereko baserria.

Argazkian agertzen direnak, goian, ezkerretik eskumara: Imanol Konde, Sabin Beristain, Jose Urija (t) (atzean), Carlos Revenga, Garai (atzean), Manolo Agerri (t), Jose Maria Regil, Juan Cruz Gabilondo, Roke Gabilondo (t), Carlos Unzilla (t) eta Pedro Beristain (t).

Behean, ezkerretik eskumara: Gerardo Garate (t), Imanol Vallejo (t), Manolo Gil eta Jose Mari Gabilondo (t).



ESKERTZA

2002ko azaroaren 20an, 86 urte zituela hil zen
SABINA MUGURUZA ETXEBERRIAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ur,

ESKERTZA

2002ko azaroaren 20an, 94 urte zituela hil zen
MARGARITA MUGURUZA ETXEBERRIAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ARAMBURTT



BITXIDENDA

OPARIEN EROSKETAK EGITERAKOAN KONTUTAN IZAN,
AURTEN ERE, 15 €KO GASTUAGAT1K
TXARTEL BAT EMANGO ZAIZULA,
ERREGE BEZPERAN EGINGO DEN
URREZKO 131 ERLOJUREN ZOZKETARAKO



JOSE MARIA SALABERRIA



MANOLI MENDIZABAL

AurrerEJV ZU IZAIV ZAITEZKE!!!

San Frantzisko, 26 Tel/faxa: 943 74 25 35

ZURE ORDENFIGRILURK ZINTZILIK UZTEN 1311ZRITU...

DEITU KZlaguntzara

Tel.: 902 544 545
www.kzlaguntza.net

KZlaguntzak, informatika orientazioko doako zerbitzu berriak, ordenagailuen munduarekin zerikusirik duen edozein zalantza argitzen lagunduko dizu.

ARRETA ORDUTEGIA

KZlaguntza

Igandetik ostegunera:
10:00etatik 22:00etara
Ostiral eta larunbatetan:
10:00etatik 24:00etara



aurrera doan
herria



eushadi
informazio gizarlean (Gmail) Cae E mmmelon



PUNTO RABO

markeliñe

zerua vs infernua



Abenclualy P_c u%licala

?P:i5ean

11.P3.19103 AbiTiohlt4

Punto. Rabo keinu bidezko "komedia transzendental" da. Zer gertatzen da arimekin? Nork jaso edo zaintzen ditul Beharbada eternidadearen gestioa bera ere, pribatizazio prozesu batean egon daiteke.